# AURKEZPENA / PRESENTACIÓN

ICOM-ek 2019ko Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko proposatu duen gaia «Museoak ardatz kultural gisa: Tradizioaren etorkizuna» da eta hausnarketa bat iradokitzen du museo-erakundeek gizarte eta kultura garaikideetan duten funtzioari eta bertan zaintzen den ondarearen etorkizunari buruz. Museoa bizirik dagoen eta bere ingurune sozial eta kulturalean zeharo inplikatuta dagoen erakunde bat da, eta gordetzen duen ondare kulturala etorkizunerantz aurrera egiteko baliabide bat da.

Gai horretan inspiratuta, Karlismoaren Museoak bost artista gazteri erronka bat proposatu die, hain zuzen, haien ikuspegia eman dezaten ia bi mende dituen eta Espainiaren, baina, bereziki, Nafarroaren historia garaikidean hain garrantzitsua den mugimendu honi buruz.

*Multiprisma: Karlismoari begiradak gaur egun (1808-1977)* proiektua ideia horren emaitza da. Proiektuak karlismoaren historiara, gertakarietara, ideietara eta pertsonaietara hurbiltzea proposatzen du egungo kulturan eta gizartean murgilduta dauden ikuspegi gazte batetik eta genero-ikuspegitik abiatuta eta graffitiaren, ilustrazioaren, kaligrafiaren eta muralismoaren arloetatik datozen bost artista gazteren lanen bidez. Bostek askotariko ikuspuntu kontzeptual, ikonografiko eta teknikoen bidez erakundearen gidoi museografikoak hartzen duen garaiari buruzko begirada pertsonal eta gogoetatsua islatuko dute, hain zuzen ere, Independentzia Gerratik 1977ra.

Jabier Landa «Corte», Döner, Jon Zabalegui, Leire Urbeltz eta J. Angel Perotxenaren (Malmö) proposamenen abiapuntua ez da karlismoa kritikatu ez haren apologia egitea; aitzitik, jarrera objektiboak dituzte, ez dute inongo loturarik

El lema propuesto por el ICOM para celebrar el Día Internacional de los Museos 2019, «Los museos como ejes culturales: El futuro de la tradición», sugiere una reflexión para las instituciones museísticas sobre su papel en la sociedad y cultura contemporáneas y el futuro del patrimonio en ellas custodiado. El museo se postula cada vez más como una institución viva y totalmente implicada con su entorno social y cultural, y el patrimonio cultural que atesora es un recurso de progreso y avance hacia el futuro.

Inspirados en este lema, desde el Museo del Carlismo se ha propuesto a cinco jóvenes artistas el reto de ofrecer su visión sobre la historia de este movimiento de casi dos siglos de existencia y que tanta importancia tiene en la historia contemporánea de España y, particularmente, de Navarra.

Esta idea ha dado como resultado el proyecto *Multiprisma. Miradas actuales al carlismo (1808-1977)* que propone una aproximación a la historia del carlismo, sus hechos, ideas y personajes, desde una perspectiva joven y de género, inmersa en la cultura y en la sociedad actuales, a través del trabajo de cinco artistas procedentes del graffiti, la ilustración, la caligrafía y el muralismo, y que desde diversos prismas conceptuales, iconográficos y técnicos, proyectan una mirada personal y reflexiva sobre el período que abarca el guión museográfico de la institución, desde la Guerra de la Independencia hasta 1977.

Las propuestas de Jabier Landa «Corte», Döner, Jon Zabalegui, Leire Urbeltz y J. Angel Perotxena (Malmö) no parten de la crítica ni de la apología del carlismo, sino que, desde posturas objetivas y totalmente desvinculadas ideológicamente del mo-

mugimenduarekin eta hari buruzko analisi zorrotza egiten dute, eta hautematen da sormen-prozesu osoan zehar eta azken emaitzan, non estiloak, teknikak, ikonografiak, kontakizunak eta mezuak batzen dituzten. Karlismoari buruzko hausnarketek askotariko interpretazioak eskaintzen dituzte, zeinak indar handiko irudi eta grafismo harrigarrien bidez adierazten diren.

Askotariko inspirazio-iturriak erabili dira: literarioak, José María Iparraguirre eta Pío Barojarekin; Zumalakarregiren irudiak dituzten XIX. mendeko grabatuak; aldizkariak, *La Flaca* eta *Pelayos* esaterako; pinturak, Mariano Fortunyrena, Elías Salaverría, Gaspar de Jauregi erretratatzen duena, edo garaikideagoak, Ferrer-Dalmaurenak kasu; argazkiak, haien artean, «Napalmaren neskatoa» (Vietnam, 1972); banderak, Santa Cruz apaizaren partidarena adibidez; ikus-entzunezko dokumentuak; Henry Darger outsider artistaren ilustrazioak; ondare immateriala; hizkuntza eta hizkuntzaren semiotika; eta artista orok zaintzen duen kultura bisuala bera, garaikidea eta urbanoa. Horrek guztiak proiektua aberastu du eta karlismoaren historiarekin lotutako mezuak, egoerak eta gertakariak egungo ikuspegitik irakurtzea ahalbidetu du. Emaitza txundigarria eta probokatzailea da bai bisualki bai kontzeptualki, eta, aldi berean, museoaren ikuspegia, gaia eta eztabaidarako eta hausnarketa kritikorako espazio gisa duen eginkizuna aberastu ditu.

Jon Zabaleguiren lanean, hitza komunikatzeko baliabide gisa agertzen da, baina ondare immateriala transmititzeko eta hizkuntzaren eta, aldi berean, herri baten nortasunaren elementu gisa ere bai. Hori guztia kaligrafiaren bidez, hitzaren ahalmen estetikoa kontuan hartuz eta bere horma-irudian Iparraguirreren olerkietako bat islatuz urre kolorez ida-

vimiento, ofrecen un riguroso análisis del mismo perceptible en todo el proceso creativo en el que se integran estilos, técnicas, iconografías, relatos y mensajes, y en el resultado final, donde las reflexiones sobre el carlismo ofrecen lecturas diversas que se expresan con potentes e impactantes imágenes y grafismos.

Las fuentes de inspiración empleadas han sido diversas, literarias, con José María Iparraguirre y Pío Baroja, grabados del siglo XIX con las imágenes de Zumalacárregui, revistas como *La Flaca* o *Pelayos*, pinturas de Mariano Fortuny, Elías Salaverría, la que retrata a Gaspar de Jáuregui, o más actuales como las de Ferrer-Dalmau, fotografías como la de «La niña del Napalm» (Vietnam, 1972), banderas como la de la partida del cura Santa Cruz, documentos audiovisuales, las ilustraciones del artista outsider Henry Darger, sin olvidar el patrimonio inmaterial, la lengua y la semiótica del lenguaje, y la propia cultura visual, contemporánea y urbana que atesora cada artista. Todo ello ha enriquecido este proyecto permitiendo una relectura actual de los mensajes, situaciones y hechos relacionados con la historia del carlismo, ofreciendo un resultado impactante y provocador tanto visual como conceptualmente que, a su vez, enriquece la visión del museo, de su propia temática y su papel como espacio de debate y de reflexión crítica.

En la obra de Jon Zabalegui, la palabra se muestra como recurso de comunicación pero también como elemento de transmisión del patrimonio inmaterial y de la propia lengua y, con ella, de la identidad de un pueblo, sin olvidar su poder estético, a través de la caligrafía, que en letras de oro plasma en el muro uno de los poemas del bardo Iparraguirre, autor del «Gernikako arbola».

Jabi Landa «Corte» reflexiona sobre la ambigüedad de la Historia, que presenta

tzita, izan ere, bardoak «Gernikako arbola» abestia eskaini zion errege-nahi karlistek Foruen defentsa zin egiteko erabiltzen zuten zuhaitzari.

Jabi Landa «Corte» artistak historiaren anbiguotasunari buruz hausnartzen du pertsonaia eta gertakari paradoxikoak aurkezten baititu, Gaspar de Jáuregui eta Zumalakarregi, armakideak Independentziako Gerran eta etsai sutsuak lehenengo gerra karlistan. Proposamen honek, Jauregui «Artzaya» pertsonaiaren biografiaren bidez, gerraren kontraesanezko zentzuei buruz hausnartzea ahalbidetzen du, jendea bertan eta garaile eta garaituak inguratzen dituen errealitatean parte hartzera bultzatu zuten motibazioei buruz.

Leire Urbeltzek lehenengo gerra karlistaren jatorrian sakontzen du aurreikusi ezina den gertakari natural baten bidez: neska baten jaiotza eta tronurako duen eskubide legitimoa, Fernando VII.-aren anaia zen Carlos María Isidro de Borbón errege-nahiaren, jarraitzaileek zalantzan jartzen zutena. Obra honetan gerra genero-kontu baten ondorio gisa agertzen da eta, bertan, autoreak haurtzaroari, «femeninotzat» hartzen denari eta gerra karlistetako generoagatiko zigorrei buruz ikertzen du, baita emakumeek gatazka belikoetan dituzten rolei buruz ere.

J. Angel Perotxenak (Malmö) Santa Cruz apaizaren bizitza polemikoan ardazten du bere lana, izan ere, kredoa armetara eraman zuen eta etsaiarekin krudela zen pertsonaia bilakatu zen, baina, halaber, karlismoak berak arbuiatu zuen zirt edo zarteko metodoak eta izaera basatia izateagatik. Bere partidarekin batera, armada liberalen kontrako borrokaren buru izan zen Nafarroako eta Gipuzkoako eremu handi batean, eta, han, bere feudoa ezarri zuen eta bere bandera eta lema jaso zituen. Paradoxikoa bada ere, Kolonbian eman zituen bere azken egunak, misiolari jesui-

personajes y hechos paradójicos, Gaspar de Jáuregui y Zumalacárregui, compañeros de armas en la Guerra de la Independencia y acérrimos enemigos durante la primera guerra carlista. Esta propuesta, a través de la biografía de Jáuregui, «Artzaya», permite repensar sobre el sentido contradictorio de la guerra, sobre las motivaciones que impulsaron a las gentes a participar en ella y en la realidad que rodea a los vencedores y a los vencidos.

Leire Urbeltz ahonda en el origen mismo de la primera guerra carlista a través de un hecho natural e impredecible: el nacimiento de una niña y su legítimo derecho al trono, cuestionado por los partidarios del pretendiente Carlos María Isidro de Borbón, hermano de Fernando VII. La guerra se revela en su obra como consecuencia de una cuestión de género y en ella la autora indaga sobre la infancia, lo «femenino», los castigos de género durante las guerras carlistas y sobre los roles desempeñados por la mujer en los conflictos bélicos.

J. Angel Perotxena (Malmö) centra su trabajo en la controvertida vida del cura Santa Cruz, que llevó su credo al extremo de las armas convirtiéndose en un personaje cruel con el enemigo, pero también repudiado por el propio carlismo ante sus métodos expeditivos y su carácter indómito. Junto a su partida, lideró la lucha contra los ejércitos liberales en un amplio territorio de Navarra y Gipuzkoa, donde implantó su feudo y enarboló su bandera y su lema. Paradójicamente, acabó sus días en Colombia, como misionero jesuita, y hoy es considerado un personaje beatífico y símbolo de la paz.

Finalmente, Döner plantea la lucha callejera entre dos grafiteros, Isabel y Carlos, que usan su nombre para marcar su territorio y transmitir sus ideas. Con esta propuesta, inmersa en la propia cultura ur-

ta zen, eta egun pertsonaia beatifiko eta bakearen sinbolo gisa hartzen da.

Azkenik, Dönerrek bi grafiteroren arteko kale-borroka proposatzen du, Isabel eta Carlos, haien izena erabiltzen dutenak haien lurraldea markatu eta ideiak transmititzeko. Graffitiaren kultura urbanoan murgilduta dagoen proposamen honekin artistak izenak eta sinadurak (tag) duten balioa eta esanahia azpimarratzen ditu bai kausa karlistarentzat (CARLOS) bai kausa isabeldarrentzat (ISABEL). Kaleetako «ika-mika» horrek, halaber, historiografian eta karlismoari buruzko egungo pentsamenduan dagoen eztabaida adierazten du. [sic: see below]

Multiprisma proiektuarekin, eta artista-talde honen eskutik, arte gazte garaikideena Karlismoaren Museoan sartzen da, aldi berean Estella-Lizarra hiriaren ingurunean integratuta dagoen espazio kultural gisa.

Karlismoaren Museoa

bana del graffiti, el artista incide en el valor y significado del nombre y de la firma (tag) tanto para la causa carlista (CARLOS) como para la causa isabelina (ISABEL). Este «pique» en las calles, trasluce asimismo la controversia que se mantiene en la propia historiografía y en el pensamiento actual sobre el carlismo.

Con Multiprisma, y de la mano de este grupo de artistas, el arte joven más actual ingresa en el Museo del Carlismo, como espacio cultural integrado a su vez en el entorno urbano de Estella-Lizarra.

Museo del Carlismo